

Helburua: Ipuin luze baten kontatzea eta gertakarien haria gogoan hartzen ikastea

«Elkarrekin testu bat irakurriko dugu: **Ozeanoaren konkista**

Testuan sartuko zarete paragrafoz paragrafo.

Paragrafo bat erakutsiko dizuet, isilik irakurriko duzue, zuen gogoan biziaraziko, egiazko edo irudimenezko egoera irudikatuz.

Ondotik testu zatia gordeko dut eta segundo batzuk utziko dizkizuet gogoetatzeko.

Zuetarik batek ulertu duena bere gisan kontatuko du.

Paragrafo berriak, bat bestearen ondotik erakutsiko dizkizuet. Paragrafo bat irakurriko dugun aldi oroz, zuetarik batek hastapenetik kontatu beharko du.

Prest zarete?»

Ozeanoaren konkista

Ipuinaren hastapena bizpahiru ikaslek labur dezakete.


Jakin-minez eta bere buruaz fida:

—Belagilea oker dela erakutsiko dut! —deliberatu zuen Ametsek— Urpeko izaki horiek animalia soilak baizik ez direla frogatzeko eta haien ezagutzeko bide bakarra dut: haietarik baten harrapatzea eta herrira ekartzea.

Baina nola egin? Haiei nola hurbil? Nola kausi? gogoetatzen zuen
haurrak...

Ametsek egunak iragan zituen gordeka itsasbazterreko gertakariei so.

Ohartua zen tenpesta biharamunetan zuhaitz adarrak eta enborrak ur azalean dantzan egoten zirela. Itsas ainara batzuk ere ikusi zituen, egur pusken gainean, noiztenka harria bezala lo, urak kulunkaturik.




Empty rectangular box for text input.

Empty rectangular box for text input.

Empty rectangular box for text input.

Empty rectangular box for text input.

—Txorien gisan gu ere enborren gainean ibil gintezke; aski dut adar zenbait elkarri lotzea, itsas-orga gisako baten egiteko! —bururatu zitzaion halako batean.



Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Dozena bat adar elkarri lotuz, xakurra eta biak ozeanoan ibiltzeko almadia eraiki zuen...

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Blank rectangular box for text entry.

Zergatik horrela irakurrarazi dizuet?

Zer ikasten duzue horrela irakurriz?

Ozenoaren konkista

Jakin-minez eta bere buruaz fida:

—Belagilea oker dela erakutsiko dut! —deliberatu zuen Ametsek— Urpeko izaki horiek animalia soilak baizik ez direla frogatzeko eta haien ezagutzeko bide bakarra dut: haietarik baten harrapatzea eta herrira ekartzea. Baina nola egin? Haiei nola hurbil? Nola kausi? gogoetatzen zuen haurrak...

Ametsek egunak iragan zituen gordeka itsasbazterreko gertakariei so. Ohartua zen tenpesta biharamunetan zuhaitz adarrak eta enborrak ur azalean dantzan egoten zirela. Itsas ainara batzuk ere ikusi zituen, egur pusken gainean, noiztenka harria bezala lo, urak kulunkaturik.

—Txorien gisan gu ere enborren gainean ibil gintezke; aski dut adar zenbait elkarri lotzea, itsas-orga gisako baten egiteko! —bururatu zitzaion halako batean.

Dozena bat adar elkarri lotuz, xakurra eta biak ozeanoan ibiltzeko almadia eraiki zuten